



ZILARREZKO ODOL TANTA DUTE ZAZPI HERRIK

Alegia, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Irura eta Villabonak bazuten dagoeneko, eta Ikaztegietak jaso berri du 5

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2008-07-03**

VIURTEA 1.476.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Goian, erlezainak erlauntza ateratzeko prest, atzo, Bidebieta auzoko etxebizitzan. Behean, erleak, erlauntzan. I.T.

ETXEKO HORMAREN BARRUALDEAN MILAKA ERLEREKIN, LAU URTEZ

TOLOSA Lau urtez erlauntza bat eduki dute Bidebietako etxebizitza baten hormaren barrualdean; atzo atera ahal izan zuten erlezainek 2-3

Musika eta filmak izango dira aurten ere, udako gauetan

TOLOSA Udalak eta herriko bederatzitaubernek egin dute bat aurtengo Gau Giro ekimenarekin 6



Atzoko bileraren ostean protesta egin zuten lurjabeek. I. GARCIA

Zundaketak egiteko ez dute baimenik eman lurjabeek

HERNIALDE AHTri buruzko informazio gehiago nahi dutela azaldu zieten Tyspa enpresari 4

hitza elastiko berriak salgai haur, gazte eta helduentzat elastikoarekin **poltsa opari!**

Tolosako HITZaren bulegoan eskuragarri.

Harpidedunentzat **0%25** merkeago



Hormaren atzealdean zegoen erlauntzak 1,75x75ko neurria zuen; Intzak, Lazkanok eta Sagastibeltzak kanporatu zituzten erleak; behean, Izaskun Mendizabal eta Jose Castaño etxebizitzaren jabeak. I.T.

ERLAUNTZA DUT ETXEAN

Gizartea » Lau urte inguru igaro dituzte Tolosako etxebizitza batean erlauntza logelaren hormaren atzean zutela; atzo kanporatu zuten.

I. TERRADILLOS/N. LATABURU

Bidebieta auzoko 10. zenbakia, Tolosan. Helbide soila dirudi baina askoz gehiago da. Etxebizitzaren baitan, Izaskun Mendizabalek eta Jose Castaño lau urte inguruz «bisitariekin» bizi behar izan dute, izan ere, euren logela zenaren paretaren atzean milaka erlek erlauntza eraikia zuten. Orain, lau urte beranduago, eta makina bat

bide agortu ondoren, bisitariekin agur esan diete. Ez da lan makala izan baina Luis Mari Intza erlezainak, Maritxu Lazkanok eta Joxe Sagastibeltzaren laguntzaz, lortu du erleak kanporatzea.

«Duela lau urte inguru jabetu ginen erleak barrura sartzen zirela», azaldu du Izaskun Mendizabalek. Hasieran ez zioten garrantzia gehiegirik eman baina pixkanaka «arduratzen hasi ginen». Udaltxean, hainbat elkartetan, ... aholkua eskatu zuten baina «inork ez digu irtenbiderik eman; Luis Mari Intzaren berri eman ziguten eta harengana jo genuen azkenik». Erabaki zuzena izan zen, dudarik gabe, arazoa paretan botata eta erleak aterata konponduko zela ebatzi baitzuten Berastegiko erlezainak. «Luis Mari ezagutu genuenean gure buruari esan genion berak konponduko zuela gure arazoa».

Hala, etxebizitza aztertu ostean atzo ekin zitoten lanari. Leheniketa behin, paretak zulatuta eta, ondoren, erleak kaxa barruan sartu behar zituzten.

Erleak kanporatzeko prozesua

Luis Mari Intzak azaldu bezala, «pareta bota eta kea zabaldu dugu erlauntzan», erleak sakabanatzeko eta lasaitzeko, «kanporatzeko prozesua errazagoa izan dadin». Une horretan, oraindik ere lasai zeuden erleak, astoratu gabe. Hala ere, ezin ahaztu gerturatzeko arriskua zuela eta, beraz, adituek segurtasun jantziak soinean zituzten.

Tolosako Udaltzaingoa ere bertaratu zen, horrelakoetan hesitu egiten baitute arrisku zona, «bizilagunak kaltetu ez daitezten». Udaltzainek azaldu bezala «urte sasoi honetan ematen dira kasu gehienak; urtean hamar, hamabi kasu izaten ditugu, beraz, ez gaitu harritu, baina erlauntza hau ikusgarria da benetan». Gehiegi gerturatu eta udaltzainak berak ere jaso zuen erlearen ziztada; «erleak ez dute ulertzen agintari kontuetaz», zioen algarar artean Jose Castaño etxebizitzaren jabeak.

Ondorengo urratsa, «erle erregina topatu eta kaxa barruan sartzea da, segidan gainontzekoek jarraituko diotelako eta behin guztiak kaxa barruan izanda beste leku batera eramango ditugu», zioen Intzak prozesua burutzen zuen bitartean.

Hala, erlauntza bera hartzen joan ziren, zatika eta kaxetan sartzen. Ezta baino larbak eta erle mandoak zeuzkaten xafak sartu zituzten, ondoren ateratzen dutenean, erlauntzarekin jarraitzeko. «Erregina askotan gainontzekoei deika hasten da eta hori nabaritzen da; guk ez dugu horrelakorik somatu baina erleak ez dira kaxatik atera, hori seinale ona da, erregina barruan dagoelako edota larbak daudela sentitzen dutelako, etor-

Erlauntza ebaki, eta erle erregina kaxan sartzea zen helburua, hala beste guztiak erakartzeko

kizunean erregina hortik aterako da, hain zuzen ere», azaldu zuen Intzak.

Eguerdi alderako amaitu zuten egin beharreko Intzak, Lazkanok eta Sagastibeltzak; «nahiko erraza izan da», azaltzen zuen erlezainak lana burutu ostean. Kaxak han bertan utzi zituzten, «kanpoan geratu diren erleak ere sartzen joan daitezten». Ondoren, Luis Mari Intzak berak Berrobin duen erletegira eramango ditu, bertan jarraituko dituzte.

«Bost izarreko hotelean»

Izaskun Mendizabalek eta Jose Castaño azaldu bezala, «ez da erraza izan» egoera honetan bizitzea. Ezjakintasuna, batetik, eta ezerosotasuna, bestetik.

«Gure logela zen baina duela urtebete erabaki genuen hemendik ateratzea; izan ere, oihu antzekoak ere entzuten genituen une batzuetan paretaren barrutik». Honen aurrean Intzak berak azaldu zuen, «erlauntza berean bi erregina daudenean gertatu ohi dela hori, hau da, borrokan aritzea erlauntzaren jabe nor izango den erabakitzeak eta borrokan ari direnean sortzen dutela oihu moduko soinu hori».

Arazoak arazo, «lasaitasunez» hartu dute egoera jabeek. «Natura natura da, haiek ez dituzte gure legeak ezagutzen; askok pozoina bota eta hiltzeko gomendioa eman digute baina guk ez genituen hil nahi, etxetik kanpo izan nahi genituen, besterik ez». Hala ere, euren hormen barrualdean ikusi dutenarekin «harrirituta» geratu direla aitortu dute: «Benetan ikusgarria izan da erlauntza hau topatzea gure logelan; barruan duela 20 urte sartu genuen isolatzailea ere jan dute; oso txoko ona da berarentzat, bost izarreko hotela bezalako».

Iragarki laburrak

LANA

■ **Begiralea.** Begirale tituludun pertsona behar dugu uztailean 10etik 20ra, udaleku txikian. Deitu 628947253 zenbakira.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obrak egin behar da. Interesatuek deitu 657230011/634919482.

«Erleak desagertuko balira, basamortu bihurtuko litzateke mundu guztia eta gu ere euren atzetik joango ginateke»

LUIS MARI INTZA Erlezaina

Apiterapia » Gipuzkoako Erlezain Elkarteko kidea da tolosarra; erlauntza atera du paretaren barrualdetik.

I.T.-N.L.

Luis Mari Intza Gipuzkoako Erlezain Elkarteko kidea da. Hain zuzen ere, berarengana jo zuten Izaskun Mendizabalek eta Jose Castañok zuten arazoa ikusita. Erlauntza euren etxetik ateratzeko prozesua nola izan den, eta erleen ingurukoak kontatu dizkigu Intzak.

Nolatan jarri ziren zurekin harremanetan etxebizitza honetako jabeak?

Nik ezagutzen nuen kasua, banekeen etxe horretan erleak zeudela, ikusten delako kanpotik. Kontua da, bi lagunek edo aipatu ziotela nire izena, eta orduan deitu egin zidaten laguntza eske beste bide batzutatik irtenbiderik ez lortu ostean. Zera esan zidaten etxebizitzaren jabeek, ikusi zutela erlauntza zegoela paretaren beste aldean. Orduan ikustera joan nintzen, eta erlauntza handi bat ikusi nuen, eta aterako genuela esan nien.

Nola da posible etxeko paretaren barrualdean erlauntza egitea?

Isolatzaileak jartzen dira hormen artean beroa eta hotzarengatik babesteko, eta era berean, isolatzaileak jartzean, arnasa hartzeko zuloak uzten dira. Berez, zuloak utzi baino sare batekin tapatu beharko

litzake, izan ere, horregatik sartzen dira erleak. Eta leku horiek oso egokia dira erleentzat.

Zergatik dira egokiak?

Erleak leku handia nahi ziaten du, haize korronterik ez dagoena. Oso gustukoak dituzte, parete barrualde hauek bezala, pertsianen kaxak.

Hurrengoan erreminta guztiak joan zarete, eta arazoa konponetzea lortu duzue.

Nire emaztea, lagun bat eta ni joan gara. Azkenean nahiko erraz egin ahal izan dugu. Erlauntzaren xafiak, garrantzitsuak direnak, moztzen joan gara, eta kaxan sartzen. Ez gaude ziur erregina barruan sartu dugun, ala nahi gabe hil dugun, baina edozein modutan, beste erleak barruan geratu dira, beraz, hori seinale ona da. Gaur [atzo] kaxa han utzi dugu, pixkanaka kanpoan geratu diren erleak sartzen joan daitezte, eta gero Berrobira emango dut, nire erletegia.

Gustura geratuko ziren etxebizitzaren jabeak erlauntza atera duzuean?

Bai, oso gustura geratu dira, pisu handia kendu dute gainetik. Baina, etxe horren kanpoaldean, ikusi dut erle gehiago ere badabiltzala, beraz, uste dut erlauntza gehiago ere izango direla.

Askok zuek erabiltzen duzuen bidea ez dute erabiltzen.

Ezjakintasunagatik edo, askok egokiena hiltzea dela uste dute, baina hori ez irtenbidea, izan ere, erle horiek aberaska egina daukate, beraz, datorren urtean ere erleak izatea bertan posible da.

Zuk zenbat erlauntza dituzu?



Luis Mari Intza erlezaina. I.T.

20 erlauntza dauzkatzat, Berrobira. Nire kasuan, zaletasuna da. Betidanik gustatu izan zait erleen mundua, kuriosoa iruditu zait.

Orain hemen erleen kultura galtzen joan da, garai batean baserri guztietan zeuden erlauntzak. Naturatik gertuago zeuden, beraz,

konturatzen ziren erleak dakarten onurez. Bestalde, erlijioarekin ere lotu izan dira erleak ere, argizariarekin, esaterako, eta hor badago pasadizo kuriosoa Oresan: lehen etxeko nagusia hiltzen zenean etxeko gainerako kideak erlauntzara joateko ohitura zegoen, eta erleei hitz egiten hasten ziren, argizari ona egin zezatela nagusiarrentzat eskatuz.

Erlazain asko al daude Tolosaldean?

500 erlazain gara elkarte osatzen dugunak, eta denen artean 6.000 erlauntza ditugu.

Erlagintzatik bizitzea posible al da?

Posible da, baina horretarako, gutxienez, 200 erlauntza eduki behar dira, bestela ez baita behar adina ezti ateratzen. Gipuzkoan eta Bizkaian oso gutxi ekoizten da, baina Nafarroan, esaterako gehiago.

Gu bizi ahal izateko erleak ezinbestekoak direla diote.

Dinosaurioak desagertu ziren, baina erleak ez. Erleak egiten duen lana, hau da polenizazioa egiten jarraitzen du. Une honetan, gizakiak egindako astakeriengatik erle asko desagertu egin dira, baina ez dira denak desagertuko. Gu lehenago desagertuko gara erleak baino. Erleak egun batetik bestera desagertuko balira gu handik 5 urtera desagertuko ginelako zioen Einsteinek. Ez dakit hain drastikoa izango litzatekeen, baina basamortu bihurtuko litzakeela guztia, hori bai, eta basamortu bihurtuko balitz, gu ere atzetik joango ginateke.

Bit Apiterapia, erleen onurak ezagutzera emateko

Osasuna » Bertako medikuen artean apiterapiaren erabileraren onurak zabaltzea da elkartearen helburua.

I.T.-N.L.

«Behin ezagutzen duzunean apiterapiak pozoindu egiten zaitu», baieztatu du Intzak, erleen produktuen onurak azaltzerakoan. «Zaletzat» du bere burua, baina erleen produktuek ezagutzera eman aldera, Bit Apiterapia elkartearen berri berri dute.

Erleen produktuek oso onuragarriak direla azaldu duzu, baina hauen praktika ez dago oso zabalduta.

Ez, zoritxarrez apiterapiaren berri gehiago dago kalean medikuen artean baino. Fakultatean ez diete horrelakorik erakusketan. Orain

gutxi Bit Apiterapia elkartearen sortu dugu. Gure helburua apiterapiaren erabilera medikuei zabaltzea eta honen onuren berri ematea da. Ean animatzen diren hau erabiltzen benetan, oso onuragarria da benetan.

Ezagutzen al duzu onura izan dutenen kasurik?

Bai, noski. Esaterako, nire lagun batek bizkarrean du gaixotasun kronikoa, gogortu egiten zaio pixkanaka. Denetik probatu ondoren, apiterapia proba zezala proposatu nion; probatu eta sekulako onurak izan zituela aitortu zidan. Orduetik erletegia jarri zuen. Erreumarentzat ere oso ona da. Gaur goizean Izaskunek berak [etxebizitzaren jabeak] kontatu du bere familiako bati hanka ebaki eta zaurian ez zia ematen ziotela ospitalean bertan. Medikuek hark bazekien zer bait.

Eta zuk zuek proba egin al duzu?

Bai. Behin Aralarrean joan eta or-

katila bihurtu nuen. Nire andreari erleak ekartzeko esan nion eta euren pozoina sartu nuen mina nuen lekuan. Medikuek emandakoak hartu gabe sendatu nuen orkatila.

Non da arruntagoa, bada, apiterapiaren erabilera?

Hego Amerikan oso mediku onak daude, apiterapia erabiltzen dutenak. Kuban, Argentinan edota Uruguain erabiliagoa da metodo hau. Askotan izan naiz apiterapiari buruzko kongresuetan, Kuban. Hantxe ikusi nuen bost urteko neskatxa bati erredura bat ezti eta propoliarekin sendatzen.


Elkartean zer ekimen egin dituzue?

Pasa den hilean egin ditugu Urretxun eta Iruñean oso hitzaldi interesgarriak. Bertan Hugo Agirre argentinarrak hitz egin du eta apiterapiaren garrantziaz aritu da. Harek esaten du erle baten ziztada

jasotzen baduzu atzo baino osasuntsuago zaudela. Oso interesgarria izan da berak azalduko. Euskal Herriko mediku bat ere izan da eta apiterapiaren efikaziarrekin konbentzitu geratu da eta aplikatzen hasiko da. Elkarteko kide egin da.

Tolosaldean ere hitzaldiren bat emateko asmorik?

Asmoa baino dirua da. Hego Amerikatik apiterapia praktikatzan duten medikuek ekartzea asko kostatzen da. Duela 2 urte ere Julio Cesar Diez ekarri genuen. Ea noiz dugun aukera hurrengo egiteko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Lurjabeek ez dute eman baimenik AHTren inguruko zundaketak egiteko

Hernialde » AHTri buruz informazio gehiago nahi dutela zioten zundaketak egiten dituen enpresarekin egindako bileran.

IMANOL GARCIA

Hernialdeko zenbait lurjabeek eta AHTren inguruko zundaketa egiten dituen Typsa enpresako ordezkariak bilera egin zuten atzo goizean udaletxean. Bertan, lurjabeek ez zuten baimenik eman zundaketarik egiteko eta AHT proiektuaren inguruan informazio gehiago eskatu zuten. Bilera eta gero, lurjabeek *Informazio gehiago, inposaketa gutxiago* jartzen zuten karteekin protesta egin zuten.

Eusko Jaurilaritzatik harremanetan jarri ziren Hernialdeko Udalarekin zundaketekin hasteko asmoa zutelako azalduz eta zundaketa horiek egin behar zituzten lurjabeekin harremanetan jartzeko. Udala lurjabeekin harremanetan jarri zen eta hauek bilerara



Bileraren ondoren lurjabeek protesta egin zuten informazio ez dutelako jaso. I. GARCIA

baterra joateko erabaki zuten. Atzo egindako bilera horretan, Typsa enpresakoak baimena eskatzeko asmoarekin azaldu ziren. Zenbat

zundaketa egin behar zituzten azaldu eta ordainetan lanean ariko ziren eguneko 60 euro emango zirela azaldu zuten.

Horren aurrean, lurjabeek informazio gehiago eskatu zuten AHT proiektuaren inguruan. Proiektu horrek beraiatzat nola-

ko eragina izango zuen eta datu zehatzak ere eskatu zituzten. Typsa enpresako ordezkariak ez zuten horren inguruko informazio gehiago eman eta bere zeregina zundaketak egitea zela azaldu zuten.

Egoera horren aurrean, lurjabeek baimenik eman aurretik informazio gehiago behar zutela eta horretarako «etorri behar duenak aurpegia eman dezala» esan zuten. Typsa enpresakoek, ikusirik ez zutela zundaketa egiteko baimenik lortuko, bilerari amaiera eman zioten. Aurrera begira ez zen zehaztu zer gertatuko den eta lurjabeek eskatutako informazioa lortuko duten ere zehaztu gabe gelditu zen. Garbi dagoen bakarra da Hernialden ez dutela baimenik eman zundaketak egiteko.

Aurreko zundaketaren ordainketak jaso gabe

Orain lau urte zundaketak egin zituzten Hernialden. Orduan bi lurjabe baimena eman zuten bere lurretan egiteko. Ordainez diru kopuru bat jasoko zutela esan zitzairen, baina oraindik ez dute ezer jaso.

AHT Gelditu! Elkarlanetik azaldu dutenez, «lurjabeek ez ordain-tzearena ere errepikatu da. Esaterako, Zizurkilen egin berri diren zundaketen ondoren, lurjabeek ere ez dute diru kopururik jaso».

Hobi septikoa, eskola eta zentro soziala dira egungo proiektu nagusienak

Alkiza » Hobi septikorako sistema berritzaile baten proiektu pilotoa martxan jarri dute Antzieta baserrian.

IMANOL GARCIA

Alkizako Udalak hiru proiektu garrrantzitsu ditu mahai gainean. Alde batetik, hobi septiko berri bat egitearena. Bestetik, eskola egokitzzea, eta, azkenik, zentro soziala egitearena.

Azken urteotan herritar kopurua handitu egin da Alkizan eta egun 180 lagun inguru bizi dira bertan. Herriko ur zikinak bildu eta tratatzeko dagoen hobi septikoa 70-75 lagun bizi zirenean erai-ki zen eta egun txiki geratu da. Orain Udala aztertzen ari da zer

motatuko hobi septikoa egin, gaur egun dagoen sistema berdinekoa baina handiagoa edo ura txixtaren bidez tratatzen den sistema berritzaile bat erabiliko zuena. Azken hau merkeagoa izango litzateke eta ikusteko nolako funtzionamendua duen proiektu pilotoa bat jarri da martxan Antzieta baserrian.

Eskola ere txiki

Herriko eskola ere txiki geratzen ari zaien eta datorren ikasturteabegira aldaketak egin beharra daude. 2-3 urteko gelan haur gehiago izango dira datorren ikasturtean eta horregatik eskolaren azpian dagoen tailerra egokitu beharko dute haur horiek egon ahal izateko. Horrela, haur eskolaren ondoko lokala egokituko dute tailerarentzako.

2009-2010 ikasturterako haur kopurua asko handituko da eta egoera horren aurrean irtenbide bat aurreikusten ari dira Udaletik: egun frontoia dagoen lekuan eskola berri bat egitea. Aurrera begira asmo hori gauzatu daitekeen ikusteko bilera bat egingo dute aurki Udalak eta Hezkuntza Sailak.

Zentro sozial berria

Beste proiektua maisuaren etxea bezala ezagutzen den eraikinean zentro sozial bat egitearena da. Maisuaren etxearen erdia Udalarena da, udaletxearen ondoan dagoen zatia hain zuzen, eta hori egin-golitzateke.

Goiko solairuan bi etxebizitza egingo lirateke, herriaren sortzen diren beharretarako erabiltzeko. Lehenengo solairuan gizarte laguntzailearen bulegoa eta gela baliogintza bat sukalde txiki batekin aurreikusten da. Gela hori batez ere adinekoren bilgune izango da. Behe solairuan, gimnasioa eta Osakidetzak onartzeko gero, medikua-erentzako gela bat. Hain justu, Udala ahalaginetan ari da mediku kontsulta herrian izateko. Gainera, orain arte alkizarrak medikua-



Udaletxearen ondoko maisuaren etxean egingo da zentro soziala. I. GARCIA



Eskolan aldaketak izango dira datorren ikasturterako. I. GARCIA

gana Anoetara joaten baziren, as-telehenetik aurrera Irurara joan beharko dute.

Obrak noiz hasiko diren ezin dute zehaztu Udaletik, diru lagun-

tzak noiz jasoko dituzten zain daudelako. 400.000 euro inguruko aurrekontua du zentro sozialak eta diru laguntzak lortzea ezinbestekoa izango da.

ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Industrigunea, 18 • BELAUNTZA

Eskualdean 7 dira zilarrezko odol tanta jaso duten herriak

Ikaztegieta » Duela 25 urte hasi ziren odola ematen; lehenengo udaletxean, eta gaur egun, kirolegian egiten dute.

NEREA URBIZU

Ikaztegietak ere zilarrezko odol tanta jaso du; guztira, Tolosaldean 7 herri jaso dute esker oneko garaikur hau. Gipuzkoako odol-emaileen elkarteak emandakoa da, eta hau 1.000 biztanleko 50 odol-emailerengatik jasotzen da. Ikaztegieta ez da biztanlegoa 500era iristen, baina 25 odol-emaile baino gehiago daude. Beste 6 udalerriak Alegia, Irura, Anoeta, Villabona, Berastegi eta Asteasu dira.

25 urte daramatzate odola ematen Ikaztegieta, Martina Garmendiak gogoratzen duen moduan: «1983an hasi ginen ematen. Urtean bi aldiz emateko aukera dago kirolegian. Azkena aste honetan egin dugu eta hurrengoa, berri, azaroan izango da».

Martina arduratzen da odol-emaileei abixua pasatzeaz eta dena antolatzeaz, 1983az geroztik, hasieratik, hain zuzen. «Herritarrez gain, batzuetan Legorretakoak, Beasaingoak eta Alegiakoak ere datoz. Azken honetan 28 lagun etorri dira: zifra hau mantendu



Eneritz Maiz alkatea, Martina Garmendia eta Joxe Mari Uria alkate-ordea. N.U.

egiten da urtero, batzuk erretiratu egin behar dira, baina jende gaztea ere hasi da odola ematen eta hau oso inportantea da».

Odol-ematea atseginagoa

Odol-emateen ondoren jatekoak eta edatekoak izaten dira, eta «horregatik eskerrak eman beharrean nago: Toki alai jatetxeak txorixoa

jartzen du, Herrigintza elkarteak ardo kaxa bat ematen du, baserrietatik kafesne termoa eta patata tortilla egiteko osagaiak ematen ditu. Udalak diru laguntza ematen du, behar diren materialak erosteko». Noski, «odol-emaileei eskerrak ere eman behar zaizkie eta, baita animatu ere, odola ematen jarrai dezaten».

Renobales Elgetako finalean

Alegia » Unai Onsalori irabazi zion finalurrekoan eta bihar ariko da Elgetako Lau T'erdiko finalean, herritarren babesarekin.

ERREDAKZIOA

Ugaitz Renobales pilotari alegiarrak V. HITZA Txapelketako txapela irabazi berri du Bengoetxea bikote izanik, nagusien mailan.

Hori joan den larunbatean izan zen, eta bertan adierazi zuen bezala, biharko Elgetako finalera iritsi zela ere aipatu zuen alegiarrak, Unai Onsaloa aresoarrahonetarako finalerdian menderatu ostean. Partida «bikaina» egin zuen orduan, dena ongi ateraz.

Aurrera-Saiatz pilota eskolanda-bilen Renobalesentzat Elgetako Lau T'erdiko Txapelketa ezagutzen du, baina ez da inoiz finalean aritu. Urrutikotxeak gaztearen

kontra aritu beharko da. Aurkari «gogorra» da Galdakaokoa eta honetan bereziki borrokatu beharko du alegiarrak. Dena dela, «seguru» agertu da Renobales, «konfiantzaz», aurreko garaipen guztiak ematen joan direnak.

Herritarrek Renobalesek jokatzen dituen partidetak joateko ohitura handia dute eta honetan ez da gutxiagorako izango: han izango ditu jarraitzaileak bera animatzen.

Z Zurea da hitza info

Artubi elkartearen jubilatuen eguna ospatu dugu



Jubilatuek gustura bazkaldu zuten Artubi elkartearen. ARTUBI ELKARTEA

Bedaio » Datorren igandean Iker eta Joseba bizilagunak gogoan izango dituzte, omenaldi moduko bat eginez.

ARTUBITIK

Joan den igandean, Bedaioko aiton-amonek egun eder bat pasa zuten. Artubi elkarteak eskainita eta eguraldia lagun zutelara, egun atsegin batez gozatu zuten. 12:00etan, Artubi elkarte bi kidek Tolosako Iurreamendin dauden Bedaioko aiton-amonak bisitatu zituzten. Beraiekin ere gogoratu zirela adierazteko eta oparitxo bana eskuetan hartuta egin zieten harrera.

Eurek, irribarrea ezkutatu ezinik eta esker ona nola adierazi ez zekitela ere, emozioa nabaria zen haien begietan. Bedaioko kontu zaharrak berriro eta berriak kontatuaz momentu atsegina pasa ondoren, Bedaiora itzuli ziren denei eskuminak emateko enkarguarekin.

13:00etan, Bedaioko parrokiaren meza nagusia ospatu zuten han bildu zirenek, apaizgintzan 50 urte bete berri dituen Joxe Agirrek emandako mezan. Amaieran, bertako atarian, Xabier eta Iñaki triki-

tilariak zain zituzten trikixoa doinu alaiak kalejiran Artubi elkarte-raino laguntzeko.

Elkartearen 20. jubilatua

Artubi elkartearen, bazkari usaina nabari zen eta zain egoteko ez zuden 14:00etarako bazkaltzen hasi ziren. Arrain-zopa, arraina, haragia saltsan eta azkenburu gozo freskoen ondoren, kafea eta kopatxoak nor bere nahien arabera. Ondoren opariaren zozketa, trikixo doinuak, karta jokoak eta batez ere tertulia izan zuten arratsaldeko zazpiak arte bertan bildu ziren Bedaioko 20 aiton-amonek.

Eskerrak eman ondoren, datorren urtera arte agurtu ziren alaitsu. Guk, osasuna eta sasoiak deus diegu gutxienez datorren urtean ere berriro elkartu daitezten.

Datorren igandean Joseba eta Iker gogoan

Datorren igandean, uztailak 6, Joseba eta Iker gogoan hartuta, beraien omenezko eguna antolatuko dugu. 10:00etan meza izango da, ondoren lore eskaintza mendian beraien omenez jarrita dauden ikur edoseinaleetan.

Eta amaitzeko, Artubi elkartearen biltzen diren guztientzat bazkari eder bat dastatzeko aukera izango da igandean.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Gau Girorekin hasteko Mikel Andueza Trioren kontzertua izango da bihar

Tolosa » Saxo, kontrabaxu eta bateria hirukotea Usabalgo terrazan ariko da gauean; honez gain hainbat ekitaldi, uda honetan ere.

ERREDAKZIOA

Uda honetan Tolosan geratzen direnek ez dute aspertzeko betariki izango. Urte askotako ohiturari jarraituz, hainbat ekitaldi antolatuta dituzte Udalekoekin datozen hiru hilabeteetarako.

Aurten, estreinakoz, bederatzita tabernekin ematen diren egitea erabaki dute, ekonomikoki lagunduz. Ondorengoak dira parte hartu dutenak: Bide-Bide, Dickens, Eguzki, Fronton jatetxea eta kafeategia, Iratxo, K2, Nalsh eta Share. Bestalde, hiru kontzertutan Kutxa izango da babesle.

Oraingoan, ekitaldi batzuk Plaza Berritik ateratzen saiatu dira, emanaldiak eszenatoki ezberdinetan kokatuz, eta hiri guztira zabalduz. Bestalde, berriro ere filmak kalean ikusteko aukera izango da. Izan ere, Amaroako Auzo Elkartearekin elkarlanean, bi film proiektutatu dituzte abuztuan. Ekitaldi guztiak kalean izango dira, eta dohainik.

Bihar ekingo diote Gau Girori

Talde honetako kideek, jazzaren errepertorioak berezkoak dituen ohiko estandar iparramerikarrak erabiliz, erronka berri bati heldu diote, hots, musikaren alorrean beste norabide batean hasteko helburuari: sonoritate pertsonalagoa erdieste herriko musika-unibertsuaren doinuak erabiliz inprobisaziorako bidea hartu dute. Aspal-diko herri-kantak, eta egungo abestiak jotzen dituzte.

Hiru kultur eremu desberdin baina,aldi berean, hurbil uztartu dituzte: Nafarroako saxofoi-jole bat, Gipuzkoako kontrabaxu-jole bat eta Ipar Euskal Herriko batera-jole bat.

Elkarekin, entzuleei oso hurbi-



Gau Girori hasiera emateko Mikel Andueza Trio izango da Usabalen. HITZA

lekoak egingo zaizkien lanak interpretatuko dituzte, esate baterako Zabalen Aitormena, edo Lua lua ezaguna, Tolosako ohiko Troika, Nafarroako Lantz herriko inauteriak edota Iparraldeko doinuak...

Euskal kultur eremuaren nahaste eta ezagutza honi esker, interpretatutako gaien jatorriari buruzko azalpen bat eman daiteke, kontzertuari nolabait ere edukipe-dagokoa emanez, eta horrek be-

reziki interesgarria eta erakargarria bihurtzen du entzuleentzat.

Mikel Anduezak (Saxoak) "Madrilgo Goi Mailako Kontserbatorioan" amaitu zituen bere ikasketak, ikasturte guztietan ohorezko matrikula lortu ondoren.

Gero, *Berklee College of Music* ikastetxean (Boston, AEB) jarraitu zuen, eta bertan graduatu zen *Cum Laude* notarekin. Halaber, urteko saxofoi-jolerik nabarmen-

nenaren *Performance Award* saria eman zioten.

Musikari eklektikoa da, hogeita hamar disko baino gehiago ditu grabatuak, eta musika klasikoan, besteak beste. Antzerkiaren alorrean, zenbait kolaborazio egin ditu *Harvard University Theatre* izenekoarekin (AEB) eta *Teatre Lliureko Orkestrarekin* Kataluniako Antzoki Nazionalan, Vainenekoizpen-etxearekin, Kilkrak...

Bere jazz-ibilbide oparoan hainbat kolaborazio egin ditu honakoekin: Manhattan Transfer, Deborah Brown, Dusko Goikowich, Tete Montoliu, Bebo Valdes, Randy Brecker, Phill Woods...

Egun, saxofoi-irakasle espezialista da Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian.

Gonzalo Tejada (Kontrabaxu): Ospe handiko musikaria da nazio mailan eta irakasle espezialista Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian.

Juanma Urriza, bateria, Musikene Jazzean goi-mailako litzenizatu da, estilo anitzeko grabazioak eta ekitaldiak egin izan ditu hainbat talderekin, hala nola Dynamic Trio, Organik's, Iñaki Salvador Trio, Mikel Gaztelurutzia musikariek.

» EGITARAUA

Uztailak 4, ostirala

■ **Mikel Andueza Trio.** Usabal kirlodegiko terrazan izango da saxo, bateria eta kontrabaxu hirukotearen kontzertua.

Uztailak 11, ostirala

■ **Lolas Club.** Frontoiko terrazan izango da emanaldia.

Uztailak 18, ostirala

■ **Tolosako Musika Banda.** Lopez Mendizabal pasealekuan izango da kontzertua.

Uztailak 24, osteguna

■ **Oliden's band.** Lopez Mendizabal pasealekuan izango da kontzertua.

bal pasealekuan izango da folk-pop musika egiten duen taldearen kontzertua.

Abuztuak 1, ostirala

■ **Aitor Furundarena eta Gari-koitz Mendizabal.** Plaza Berrian izango da Akordeoi eta txistu bikotearen emanaldia.

Abuztuak 4, asteartea

■ **Zinea aire librean.** 'Mortadelayo filemon. Mision: salvar la tierra' filma izango da ikusgai Amartzuz-uzoan.

Abuztuak 7, osteguna

■ **Zinea aire librean.** 'The host' filma izango da ikusgai Amartzuz-uzoan.

Abuztuak 8, ostirala

■ **Karma Quintet.** Fronton kafetegian izango da jazz bokal-pop kontzertua.

Abuztuak 29, ostirala

■ **Jamix.** Funk, jazz eta reaggae doinuak nagusituko dira Plaza Berrian.

Irailak 5, ostirala

■ **Manent.** Talde tolosarraren kontzertua izango da Plaza Berrian.

L Laburrak

Festetako herri-antzerkiak hitz egiteko bilerak, gaur

IBARRA » Aurten ere Sanbartolome jaietan herri-antzerkia egingo dute. Hori dela eta, parte hartu nahi duten guztiei gonbita egiten diete gaur iluntzean egingo den bilerara joateko. Bertan, antzerkiaren nondik-norakoak hitz egingo dute. Hau da, zer istorio den antzertuko dena, pertsonaiak zeintzuk izango diren, zein egunetan aurkeztuko den... Batzarra 19:00etan izango da, Alurrun dantza-lokal zaharrean (Ibai-gain).

Kartografia ikastaroa antolatuta du Oargik

TOLOSA » Oargi mendi elkarteak Kartografia ikastaroa antolatuta du hilabete honetarako. Karlos Garcia eskainiko dituen eskoletan bujula eta altimetroaren inguruan mintzatuko da. Baita mapa, kartografia eta podometroaz. Saiok uztailaren 16tik 19ra bitartean izango dira, arratsaldetan. Izen-ematea 637 83 03 80 telefono zenbakira deituta edo oargi@telefonica.net helbidera mezu bat bidalita egin daiteke. Ikastaroaren prezioa 25 eurotako da, eta nahi duen orok hartu dezake parte.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarralde. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Germikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAJOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320



Urkizukoak jaietan, sanpedroetan

URKIZU » San Pedro jaiak ospatu zituzten joan den asteburuan Urkizun. Hainbat ekitaldi izan ziren larunbat nahiz igandean. Bertako jendea nahiz inguruko auzoetako bildu zen. Auzoko ohiturari jarraituz, bolo txapelketa jokatu zen igandean. Bestalde, haurrentzako jokuak eta meriendatxoak ere izan zituzten. HITZA



Gai ugari jorratu zituzten Leitzan joan den ostiralean egin zuten osoko bilkuran. N. GARZIA

Nabarralderen '1512-2012 Manifestua'-rekin bat egin du Udalak osoko bilkuran

Leitza » Leitzako Udala eta HITZAREN arteko hitzarmen proposamena ere onartu zuten ostiraleko bilkuran.

NAIARA GARZIA

Joan den ostiralean egindako osoko bilkuran Udalak Nabarraldeko aurkeztutako 1512-2012 Manifestua onartu zuen, EAE-ANV eta EAREN botoei esker. Honetan gain, herri lurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantzak ere aldatu zituzten eta herriko beste zenbait kontuek gain, Leitzako Udalararen eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN arteko hitzarmen proposamena ere onartu zuten.

Nabarraldeko aurkeztutako manifestua jada 100 lagun eta gizarte eragile inguruk sinatu dute, eta tartean dira Iñaki Perurena, Iñaki Zabaleta Urkiola, Pablo Antoñana-Nestor Basterretxea etabar. Manifestu honek Nafarroako konkistaren inguruko zenbait datu ematen ditu, eta honi erantzunez, UPNren zinegotziek beste idatzi bat aurkeztu zuten.

Udalaren atxikimendua

Udalak sinatutako manifestuaren amaierak hau dio: «Gauzak honela, 1512ko konkista XVI. mendearen osteko askak ziren nafar lurraldeen inbasio bortitzaren emaitza izan zela, eta ondorioz, gure herria espainiar eta frantses kolonia dela ezagutzeari beharrezko deritzogu. Historiak independente izan gi-

nela erakusten digu, eta izateari utzi geniola, ez gure arbasoen nahiaz, baizik eta espainiar eta frantses nahikeria dela eta».

Esan bezala, UPNk beste idatzi bat aurkeztu zuen, gazteleraz, «historia historia dela» aipatuz eta historialari dagokiela hori azaltzea. «Eta manifestu hau sinatzen dutenen artean ez dut bakarririk ere ikusten, bueno, Mikel Soraureren, baina historialari baino gehiago militante bat da». Zubiturrek eta Goikoetxeak aurkeztutako idatziaren arabera «Niri askatasuna Konstituzio Espainiarrak ematen dit eta ez dut uste zuek amets egiten zuek herrialde independente horretan onartuko luketenik».

HITZAREKIN HITZARMENA

Bestalde, joan den ostiralean egindako batzarrean Leitzako Udalararen eta HITZAREN arteko hitzarmen proposamena onartu zuten. Honen arabera Leitzako Udalak, HITZARI 2008. urterako 2.889 euroko laguntza emanen dio (biztanleko euro bat), eta indarrean dagoen legealdia amaitu bitartean urteko biztanleko euro bat emateko konpromisoa onartu du. Xabier Zabalo Leitzako alkateak eta Jon Mujika HITZAREN kudeatzaileak gaur sinatuko dute hitzarmena.

Gizarte zerbitzuen kokapena

Aztertutako beste gaietako gat gizarte zerbitzuen egoitzaren kokapenarena izan zen, izan eren, Udalak diru laguntza bat eskatu du udaletxean igogailu bat jartzeko eta Xabier Zabalo alkateak azaldu duenez, «diru laguntza hori jasoz

gero gizarte zerbitzuen egoitza udaletxeko lehenengo solairuan jartzeko konpromisoa hartu dugu. Dirulaguntza Nafarroako Ongizate sailak ematen du eta igogailua jartzeko diru laguntza eskatu dugu gizarte zerbitzuen egoitza hemen jarri nahi dugulako. Diru laguntza %80ekoa izanen zen. Beraz, diru laguntza lortuz gero lehenengo igogailua jarriko dugu eta gero gizarte zerbitzuak gerturatuko genituzke». Igogailua eskaileretan jarriko lukete, langileak duten txokoan, hutsa dagoen hori, eta goian artxiboko atean. «Diru laguntza ematen badigute aurtan egin beharko dugu, baldintzetan horrela jartzen baitute».

Herri lurretako aprobetxamenduak

Herri lurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza aldaketa ere onartu zuten. Zabalok azaldu zuenez, «aurreko legealdian eskubideengatik kobratzen zen, honen arabera zuk, esaterako, ardiak bazeneuzkan eskubidea zeneukan hauek mendira botatzeko. Horregatik kobratzen zen, ondorioz, nahiz eta komunaletera ez bota ordaindu behar izaten zuten eskubidea bazutetako». Zabaloren arabera, azkeneko 2 urteetan «arazo asko» sortu dira hori dela eta. «Eskubide hori kendu dugu eta aziendak komunaletera botatzen dituenari soilik kobratuko zaio. Nekazaritza bizi direnei erdia kobratuko zaie. Hori da hartu dugun akordioa, Udala delako eta Xabier Zabalo alkateak azaldu duenez, «diru laguntza hori jasoz

Gutunak

Sarriopapely eta Celulosa S.A. emakumeon eskubideen urratzaile

Sarriopapely eta Celulosa S.A. lantegia Leitza eta inguruetak famili askoren ekonomia oinarri da, edo famili hauek subjektu konkretu batzuen aita eta semea. Emakumeak non gaude? Eguz, inposaturiko gizarte patriarkalak sexuen arabera lan banaketa du oinarri. Eta Sarriopapely eta Celulosa S.A. lantegiak sistemak ezarriko eredu hau sostengatzen du. Datu hauek ez al dute argi erakusten?

Eskulanari dagokionez, 38 emakume eta 267 gizoneko daude lantegian, eta emakumeak kontratatu zituzten azkeneko aldia 1976. urtea izan zen. Geroztik, eta emakumeok bertan lan egiteko prest egon arren, ez baitigute aukera eman eta egun ere ez digute ematen.

Udara atarian gauden honetan, urtero legez, lantegiaren lan-eskera igo egiten da, batez ere eskulana. Teorian, hau, sekulako aukera litzateke herriko gazteentzat. Baina zoritxarrez teoria geratzen da. Errealitatea bestelakoa da. Gizonen kontratatuko dituzte, azken 32 urteetan bezala, emakumeok itxaron-zerrendetan jarraitu beharko dugu.

Pertsona ororen eskubidea da lan duin baterako sarbidea gizonen zein emakumezkoengan aukera berdintasunean ematea. Eta honela dio Sarriopapely eta Celulosa S.A. enpresaren lan-hitzarmen kolektiboak 32. artikuluan, Berdintasuna eta diskriminaziorik eza izenburupean. «Enpresa barruan langileak ezin izango dira diskriminatu ideologia, erlijio, arraza, afiliazio politikoa eta sindi-

kal, eta abarregatik. Enpresako lanpostu guztietarako sarbide berdintasunaren printzipioa errespetatuko da, nola gizonen zein emakumezkoentzat ala emakumezkoentzat, inolako diskriminaziorik gabe. Lanposturen bat betetzeko deialdiaren bat gertatzen denean, sexu egoeraren erabateko abstrakzioa egingo da, eskatutako gaitasun profesionalari besterik ez zaio begiratuko».

Arestian aipaturiko datuek, ordea, sinesgarritasun osoa kentzen diete. Ez dugu ahaztu behar, ETT bitartez kontrataturiko langile guztiak ere gizonen zein emakumezkoak dira, eta honetan 22 gizonen.

Neurri eta jokaera hauek herriko eta inguruetak emakumeen askatasun ekonomiko baldintzatuta dute urte luzeetan zehar eta egun ere modu berean dihardute. Ezin dugu ahaztu errealitate honen emakumeon alor ekonomikoari eragiteaz gain gure egoera pertsonalean eragin zuzena duela. Gauzak horrela, askatasun ekonomiko urratua dugun momentutik, askatasun individuala ere guztiz mugatua dugu emakume gazte zein helduek.

Urteetan zehar lantegian emakumeon presentziari uko egin dioten arren aurrera jo behar dugu. Herriko zein inguruetak emakumeok lantegirako sarbidea eduki dezagun borrokatu behar dugu. Zerrendetan gure izena idatzi eta gure eskubideen alde kalera irteerako garaia da.

Egoera honen erantzulea Sarriopapely eta Celulosa S.A. da, baina egoera hau salatzea denoi dagokigu; herriari! Bazterkeria ezetz esateko garaia da! Euskal Herri feministak erakitzeko bidean gora emakumeon borroka!

Leitzako Bilgune Feminista. Leitza.



Trafiko seinaleak jartzeko obrak

ELDUAIN » Bai Elduainen bai Berastegin obrak egiten ari dira, trafiko seinaleak jartzeko. Hori dela eta, bi herrietan hainbat semaforo jarri dituzte zenbait puntutan errepidearen zati bat itxita dagoelako eta kotxeak txandaka igarotzen dira errepidean gora eta behera. Ondorioz, semaforoak jarri dituzten lekuetan kotxe iladak sortzen ari dira. N. GARZIA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoeta/leitza@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leitza: 687 410 032. ibarra/leitza@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza/leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta
Leitza/Leitza beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Anoeta.** Herriko plazan jolasak antolatu dituzte LH1 eta LH6 bitarteko umeentzat. Lau monitore egongo dira joku hauek antolatzeko bi egun hauetan (gaur eta bihar), goizez, 10:00etatik 13:00etara.
- **Alegia.** Alegiako Intxurre pilota eskolako denboraldi amaieran afaria egingo dute uztailearen 3an. Afarira etortzeko pilota eskolakoek Alegiako Kultur eta Kirol Etxean eman behar dute izena.
- **Elduain.** Argazki lehiaketa: argazkiak, oporretakoak izan behar dute eta posta elektronikoz bidali behar dira udaletxera: kultura@elduain.com. Izen-abizenak jarri behar dira eta nahi bada argazkiari buruzko komentario txiki bat.
- **Irura.** Ikastolaren aldeko 6. Garagardo Azoka antolatu dute bihar, etzi eta igandean; pilotalekuan izango da.
- **Tolosa.** Uztailearen 6an, igandean, egingo den Jubilatuen Festarako izen-ematea egin daiteke dagoeneko Harizpe eta Iturriza jubilatuen elkarteetan. 65 urte izatea eta Tolosan bizitzea dira bertara joateko baldintzak.

Kirolak

- **Villabona.** Oza-Atxerito (2.358 m)-Zuriza mendiko irteera antolatu



Atxeritora Aizkardirekin

VILLABONA • Aizkardi mendiko elkarteak beste ibaldia bat antolatu du hilaren 13rako. Oraingo honetan Pirinioetara joango dira. Selva de Oza kanpinetik abaituko dira eta Linzako aterpetxean amaituko dute, tartean Atxerito mendia goaz. Guztira 21 kilometro inguru egingo dituzte eta ibaldia zazpi ordu inguru iraungo duela espero dute. Izen emateko 943 69 44 58 zenbakira deitu edo Aizkardiaren egoitzatik pasa daiteke. Horretarako azken eguna hilaren 10a izango da. HITZA

du Aizkardi mendiko elkarteak hilaren 13an. Izen-ematea, elkartearen bertan.

Irteerak

- **Tolosa.** Hilaren 10erako Iruñeko sanferminetara irteera antolatu du Harizpe jubilatuen elkarteak, Bazkaria Blanca de Navarra jatetxean izango da. Izen-ematea, elkartearen bertan.
- **Tolosa.** Eguneko irteerak antolatu dira Tolosatik Zaragozako Espora hilaren 6an eta 13an. Informazioa, 627 419364 telefono zenbakian.

Erakusketak

- **Ibarra.** VIII. Kultur Lantegietako Artelanen Erakusketak zabalik aurkitzen da Benito Izagirre kultur etxean 09:30etik 13:30etara bitartean.
- **Alegia.** Alegiako jubilatuen tabernan Noelia Crujeirasen margolan abstraktoak izango dira ikusgai hilaren 6ra arte. Asteartetik igandera bitarte egongo da zabalik tabernan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

A Agurrak




Urte askoan!

Zorionak Jon. Ondo pasa zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat. Etxekoak.



Urte askoan!

Ane Goñi Bege. Zorionak sorgintxo! Atte, ama eta etxeko guztien partetik ondo pasa.



Urte askoan!

Gemma Anton. Muxu handi bat Joxe Mari, Juanen eta Aitziberren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak